

**Espedientearen kodea:** 2022ID120001  
**Espedientearen gaia:** 2022rako Arau-plana onartzea  
**Titularra:** OIARTZUNGO UDALA

## EBAZPENAREN ZIURTAGIRIA

**Maria Victoria Joaristi Olariaga, Oiartzungo Udalaren idazkari naizenak:**

**ZIURTATZEN DUT:** Udal honen Osoko Bilkurako Batzarrak, 2022/03/30n, beste batzuen artean ondorengo akordioa hartu zuela:

### “2022RAKO ARAU-PLANA ONARTZEA

Idazkariak gaiari buruz idatzitako txostenaren arabera, Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Arrunta arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 132 artikulua xedatzen du administrazio publikoek urtero arau-plan bat argitaratuko dutela gardentasunaren atarian, zeinek bilduko dituen aurreikusten diren legezko edo erregelamenduzko ekimenak. Beraz, udal sail desberdinek emandako informazioaren arabera, honako arauak onartzeko beharra ikusi da:

#### 1. Dirulaguntzak.

Dirulaguntzen Ordenantza orokorra 2018ko irailaren 26an onartu eta azaroaren 30eko 231 zk.ko GAOn argitaratu zen. Norghegiagoka prozedura bidez esleitu beharreko prozesuetan eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokion artikulua egokitu egin behar dira, besteak beste, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeari eta baita Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeari. Aipatu Lege horien baitan, interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden dokumentuak edo beste edozein administrazio egindakoak ez aurkezteko eta administrazioak eskatu edo kontsultatu ahal izango ditu agiri horiek, elektronikoki administrazioen arteko sare korporatiboan bidez, beti ere, interesdunak horren aurka egiten ez badu. Hau da, administrazioak elkarreraginkortasunez jardun behar dute haien artean.

Euskadiko elkarreraginkortasun-eredua Euskadiko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasun Nodoaren (NISAE) inguruan egituratzen da.

Beraz, ezinbestekoa da udal Ordenantza NISAErekin elkarreraginkorra izateko moduan antolatzea eta dagozkion egokitzapenak egitea eta ondoren, dirulaguntza bakoitzaren deialdian eta bertan sortzen diren eskaera ereduetan ere egokitzapenak egin beharko dira.

#### 2. Hondakinak

Hondakinen bilketa arautzen duen udal Ordenantza 2010ean onartu eta argitaratu zen (2010/04/23an eta 2010/09/21ko GAO). Garai hartan indarrean zegoen legediaren arabera idatzi zen, hau da, Hondakinen 10/1998 Legea eta Ingurumena Babesteko 3/1998 Lege Orokorraren baitan.

Indarrean dagoen Hondakinen 22/2011 Legea, uztailaren 28koa da eta zehapen prozeduran, lege-hausteen kalifikazioan eta isunen zenbatekoan aldaketak eragin ditu. Bestalde, ingurumen administrazioaren 10/2021 Legea ere onartu da zehapen erregimena aldatzera ere etorri dena. Beraz, udal Ordenantza egokitu egin behar da.

### 3. Animaliak

Oiartzungo udalerrian animalia edukitzea eta babestea arautzen duen Ordenantza 2004ko abenduaren 22an onartu zuen Udalbatzak eta 2005eko urtarrilaren 13ko GAOn argitaratu. Bere idazketan aintzat hartutako legedia, Euskal erkidegoko Animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legea, arrisksutsuak izan daitezkeen txakurren 50/1999 Legea, bere garapenean 287/2002 Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko 101/2004 Dekretua izan ziren.

Egun legedi berria indarrean dago martxoaren 24ko 44/2020 Dekretua aipatu legerian aldaketa sakonak eragiten dituena. Horrekin batera, estatu mailan, abenduaren 15eko 17/2021 Legea ere onartu berria da eta urtariletik aurrera animalien tratamenduan izaera berria ezarri da.

### 4. Trafiko

Oiartzungo herrian herri izaerako bide publikoetan erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen udal Ordenantza 2004ko abenduaren 22ko udalbatzarrean onartu zen eta 2005eko urtarrilaren 13ko GAOn argitaratu.

Ordenantzak garai hartako trafikoa, motordunen zirkulazioa eta bide segurtasunari buruzko 339/1992 E. Dekretu Legegilea eta 50/1997 Legea hartzen zituen oinarri eta geroztik testu hauek 6/2015 E. Dekretu Legegilearekin ordeztuak izan dira. Ondorioz, Ordenantza aldatu eta legeri berriari egokitu behar zaio.

Bukatzeko esan orain arte aipaturiko Ordenantza guztien idazketan honako edukiak beharko direla kontuan izan:

Prozedura administratibo erkidea arautzen zuen 30/1992 Legearen ordeztu 39/2015 Legea ezarri beharko dela.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna arautzen zuen Legea, otsailaren 18ko 4/2005 Legea, martxoaren 3ko 1/2022 Legeak eragindako gaurkotze eta aldaketa sakonak jaso dituela. Besteak beste, sexuan oinarritutako diskriminazio oro debekatzen ditu eta diskriminaziotzat jotzen du ez bakarrik zuzeneko, zeharkakoa ere baizik, honako esanahiarekin:

*“egintza juridiko, irizpide edo praktika batek, itxuraz neutroa izanda ere, sexu bereko multzo aski handiago bati kalteak eragiten dizkionean, salbu eta egintza juridiko, irizpide edo jardunbide hori egokia eta beharrezkoa denean, eta sexuarekin loturik ez dauden irizpide objektiboak erabilita justifikatzeko modukoa denean”.*

Beraz, guzti hau kontutan hartuta, Udalbatzak honako erabakia hartu du:

**LEHENA:** Oiartzungo Udalaren 2022 urteko Arau-Plana, goian jasotako edukiarekin, onartzea.

**BIGARRENA:** Udal web orrian zintzilikatzea.”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua araberan, Oiartzunen, sinaduraren egunean.



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2022ID120001-Ebazpena pleno/Ebazpena pleno (OIARTZUNGO UDALA)